

2019KO EKAINAREN HAMABOSTEAN (2019-06-15) UDAL BERRIA ERATZEKO
BILERA BEREZIA, 2019KO TOKI-HAUTESKUNDEAK ETA GERO.

2019ko maiatzaren 26ko toki-hauteskundeen ostean, Irurako udalbatza berria bildu da, Udal berria eratzeke helburuz. Bilera 2019ko ekainaren 15ean egin dute, Irurako Udaleko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan, Udaleko idazkari kontu-hartzaileak aurrez deitu eta gero.

Hautatutako zinegotzi hauek bertaratu dira: Gorka Murua Macuso, Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra, Ana Jesús Leunda Gurruchaga, José Ramón Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde.

Miguel A. Arrizabalaga Brusin jauna izan da idazkari kontu-hartzailea.

1. GAIA. - Udal berria eratzea.

Indarrean dagoen legediak jasotakoa betez, Adineko Mahaia osatu dute, kide hauekin: José Ramon Epelde Irizar zinegotzi zaharrenarekin eta Noelia Lataburu Ortiz zinegotzi gazteenarekin, eta baita akta izenpetzen duen idazkariarekin ere. Eratutako organo hori izango da bilera burua eta zuzendaria, alkate berria hautatzen den arte.

Hori horrela, mahaiburuak idazkariari eskatu dio hauteskundeen emaitzen berri eman dezala. Hori horrela, Tolosako Hauteskunde Batzarreko akta irakurri dute, Irurako Udalerako 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetako emaitzak erakusten baititu; hona hemen:

<u>Hautagaiak.</u>	<u>Zinegotzi kopurua.</u>
-Euskal Herria Bildu.	5
-Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.	4
-Guztira:	9

Era berean, hautagai gisa izendatu dituzte zinegotzi hauek:

-E.A.J./P.N.V. hautagaitzarako:

-Ana Jesús Leunda Gurruchaga and.

-José Ramón Epelde Irizar jn.

-María Cristina Santos San Sebastian and.

-Marta Castrillo Iturralde and.

-Euskal Herria Bildu hautagaitzarako:

-Gorka Murua Macuso jn.

-Noelia Lataburu Ortiz and.

-Mikel Gotzon Iturbe Saizar jn.

-Olaia Nieto Legarra and.

-Leticia Aristi Oria.

Une horretan, lehen aipatu diren zinegotzi hautatu direnak bertan daudela, eta udalbatzaren kide kopuru legalarekiko gehiengoa dutela (5), lehendakariak idazkariari galdetu dio ea kargua hartzeko beharrezko izapideak aurrera eraman dituzten; hala nola: egiaztagiriak ematea eta ondasunen eta bateraezintasunen deklarazioa aurkeztea. Idazkariak erantzun dio zinegotzi hautatu guztiek dagoeneko aurkeztu dituztela bi dokumentu horiek, eta beraz, kargua hartu dezaketela.

Horretarako eta mahaiburuen baimenarekin, idazkariak irakurtzen du Hauteskunde legearen 195 artikulua dioena:

“1.-Udalbatzak saio publikoan eratuko dira, hauteskundeak izan eta hogeigarren egunean, baldin eta aurkeztu ez bada hauteskundeekiko auzi errekurtsorik, hautatuko zinegotziak izendatzearen kontra. Aldiz, errekurtsoren bat aurkeztu bada, hauteskundeak egin eta berrogeigarren egunean eratuko da Udalbatza.

2.-Horretarako, Adin mahaia eratuko da honako kide hauekin: ekitaldian agertutako hautetsi zaharrena eta gazteena. Mahaiko idazkari bezala Udalbatzaren idazkariak berak jardungo du.

3.-Mahaiak egiaztatu egingo ditu aurkeztutako kredentzialak edo hautetsien nortasunaren akreditazioak, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak Udalera bidalitako ziurtapenen arabera.

4.-Aurreko operazioa eginda, Mahaiak eratutzat jo du Udalbatza, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua badago. Aipatu gehiengorik ez badago, bi

egun beranduago bilkura egingo da, eta han eratuta geratuko da Udalbatza, edozein dela ere bertaratutako zinegotzien kopurua.”

Hori dela eta, zinegotzi kargua hartzeko, eta indarrean dagoen hauteskunde legediak jasotakoa betez, lehendakariak agindu dio idazkariari kargua hartzeko formula irakur dezala; hona hemen:

“Bertaratutako zinegotziek zin egiten edo hitzematzen dute karguaren eginbeharrak Konstituzioaren eta gainerako legeen arabera zintzoki beteko dituztela”

Idazkariak zinegotzi bakoitza izendatu du eta hauek zin egin edo hitz eman dute, hurrenkera honetan:

-Gorka Muruz Macuso: Legeak hala behartuta zin egiten dut.

-Noelia Lataburu Ortiz: Legeak hala behartuta hitz ematen dut.

-Mikel Gotzon Iturbe Saizar: Legeak hala behartuta hitz ematen dut.

-Olaia Nieto Legarra: Legeak hala behartuta zin egiten dut.

-Ana Jesús Leunda Gurruchaga: Bai, legeak aginduta.

-Jose Ramón Epelde Irizar: Bai, legeak aginduta.

-María Cristina Santos San Sebastian: Bai, legeak aginduta.

-Marta Castrillo Iturrualde: Bai, legeak aginduta.

Gero, zinegotzi hautatu guztiek kargua hartuta, mahaiburuak udal berria eratuta dagoela adierazi du:

“Irurako Udala eratua izan da.”

2. GAIA.- Alkatea hautatzea.

Udaleko alkate berria hautatuko da eta horretarako mahai buruak agitzen dio idazkariari irakurtzeko lege-prozedura.

Idazkariak Hauteskunde Legearen 196 artikulua irakurri du, alkatearen hautaketari dagokiona. Honela dio:

“Udalbatzaren eraketa bilkura berean, alkatea hautatzeari ekingo zaio, hurrengo prozedura honi jarraituz:

a. Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke izangai.

b. Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hautetsi izendatuko da.

c. Inork ez badu gehiengo absolutua lortzen, alkatea izendatuko da, udalerrian herritarren botoen kopuru handiena lortu duen zerrendako burua den zinegotzia. Berdinketa gertatuz gero, zozketa eginez ebatziko da.”

Gero, zinegotzi hauek hautatu dira Alkatea izateko:

-Ana Leunda Gurruchaga, EAJ/PNV-aren aldetik.

-Gorka Murua Macuso E.H. Bildu-ren aldetik.

Hautagaiak izendatu eta gero, isileko bozketa egin dute, modu honetara: zinegotzi bakoitzak txartel bat bete du alkate izateko hautagaiaren izen-abizenekin. Boto zuria ere eman daiteke, edo botorik ez eman.

Gero, lehendakariak hala aginduta, idazkariak zinegotzi-zerrenda irakurri du, bozketa egiteko, hautestontzia erabilita.

Bozketa egin eta gero, Mahaiak botoak zenbatu ditu; hona hemen botoen emaitza:

-Ana Leunda Gurruchaga andreak: 4 boto.

-Gorka Murua Macuso jaunak: 4 boto.

Hori dela eta, hautagairik ez du lortzen gehiengo absolutua (5), baina legearen arabera hauteskundean boto gehien izan dituen zerrendaren hautagaia izendatuko da alkate/alkatesa. Boto gehien lortu duen zerrenda E.H. Bildu izan da eta bere zerrendaburua Gorka Murua Macuso.

Gero, kargua hartu du, Mahaiaren aurrean, eta honako hau zin egin du:

“Bertaratutako alkateak zin egiten edo hitzematzen du karguaren eginbeharrak Konstituzioaren eta gainerako legeen arabera zintzoki beteko dituela”.

Gorka Murua Macuso hau erantzun du: Legeak hala behartuta zin egiten dut.

Hori ikusita Mahaiburuak Gorka Murua Macuso proklamatzan du Alkatea eta hartzen du udalbatzaren lehendakaritza.

Kargua hartuta, Ana Jesús Leunda Gurruchaga alkate ohiak alkatearen makila eman dio. Halaber, ongietorria eman dio alkate berriari, eta zortetik onena opa dio.

Gero, Gorka Murua Macuso alkate berriak bertaratuei hitz egin die honela:

“Nire lehen hitzak taldekideentzat izango dira, beren lanagatik eskerrak emateko, talde baten ordezkari naizelako; eta Irurako herritarrei ere eskerrak beraien babesa emateagatik. Bi gauza aipatu nahi nituzke:

Lehenik, herritarrekin izandako hartu-emanak ekarri gaituela hona eta hori ez dela eten maiatzaren 26an; hurrengo lau urteetan hartu-eman hori emankorra izango da eta ez da hautsiko hemendik lau urtera arte.

Eta bigarrenik esatea eta dugula txeki zurriztat hartzen emandako babesa eta badakigula hitza bete behar dugula, herritarrekin jarraitu behar dugula lanean eta horrela bakarrik aterako dugula Irura aurrera.

Jarraitzeko, esan nahi nuke azken hogeita lau urteetan emakumezkoa izan dela Irurako alkate, hiru emakume izan ditugula, hain zuzen, eta orain niri tokatzen zaidala. Agian, bakarren batek kezka izango du berdintasun irizpideetan atzera pausoak izango direla, baina uxatu ditzala kezka horiek. Guk atzera pausoak baino aurrera pausoak emango ditugu beti, eta eskubide zibil eta politikoen alde egingo dugu, bai herrian bai Euskal Herrian, egoera larrian dauden pertsonen alde lan egingo dugu.

Eta bukatzeko bertso batzuk botako dizkiot hainbat maite dugun herri honi; nire afizioetako bat bertsoa da, nahiz eta ez hain onak izan:

“...”

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, 12:15ean eman da amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari nauzuen honek dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA